

Zoriontasuna (La felicidad)

Pertsonok zoriontsu izan nahi dugu

Jainkoak pertsona guztiok maite gaitu, eta zoriontsu izateko bidea erakusten digu: elkarrekin alai eta bakean bizitzea proposatzen digu Jainkoak, zoriontsu izateko. Pertsonak zoriontsuak gara Jainkoaren planaren arabera biziz, zintzo izanez, maitatuz, Kreazioa miretsiz, eta besteei lagunduz.



Zoriontsuak gara **zuzen jokatzeko dugunean**; hau da, gure ondasunak eta dohaiak besteekin partekatuz, guztien lagun izaten saiatuz, eta beti egia esanez.



Zoriontsuak gara **besteak maitatzen ditugunean eta gu ere maite gaituztela sentitzen dugunean**; hots, senitartekoekin maitekorrak izanez, lagunez arduratuz, eta norbaitek gure beharra duela sentituz.



Zoriontsuak gara **Jainkoaren obra miresten dugunean**; hots, naturaren edertasunari erreparatuz, natura zeinen jakintsua den jabetuz, eta hura zainduz, babestuz, errespetatuz eta gozatuz.



Zoriontsuak gara **besteei laguntzen diegunean**; elkarri laguntza emanez, eta mundua hobetzeko konpromisoa hartuz eta helburu horrekin elkarrekin lan egiteko antolatuz.

Ariketak

- Goiko testua irakurri.
- Hurrengo galdera erantzun:

Zure ustez, nola lortu ahal da zoriontasuna?

